

NUKFren PLAN ESTRATEGIKOA DEFINITZEKO GALDETEGIA

Identifikazio datuak:				
• On-line galdetegia		• Data:		
• Izena:				
• Sexua	<input type="checkbox"/> Gizona	<input type="checkbox"/> Emakumea	<input type="checkbox"/> Ez du erantzun	
• Kargua:				
• Ordezkatzen duzun entitatea:				
<input type="checkbox"/>	100 biztanle edo gutxiagoko kontzejua	<input type="checkbox"/>	500 biztanle edo gutxiagoko udala	
<input type="checkbox"/>	100 biztanletik gorako kontzejua	<input type="checkbox"/>	500-2.999 biztanle arteko udala	
<input type="checkbox"/>	Beste entitate bat:	<input type="checkbox"/>	3.000-9.999 biztanle arteko udala	
<input type="checkbox"/>		<input type="checkbox"/>	10.000 biztanle baino gehiagoko udala	
• Adina:	<input type="checkbox"/> 30etik behera	<input type="checkbox"/> 31-45	<input type="checkbox"/> 46-65	<input type="checkbox"/> 65 baino gehiago

Aurkezpena

NUKFren Batzorde Betearazleak lantalde bat sortzea onetsi zuen Nafarroako Udalen eta Kontzejuen Federazioarako Plan Estrategiko bat egiteko metodologia definitu zezan.

Talde horrek Nafarroako udalerri batzuetan zazpi eremu-bilera egitea erabaki zuen aurretik onetsitako jarduketa-ardatzak eztabaidatzeko.

Bilera horien oinarritzko helburuak bi dira:

- Azken urteetako NUKFren funtzionamendua eta lan egiteko modua gogora ekartzea.
- Proposatutako jarduketa-ardatzaren inguruan eztabaida sortzea eta NUKFren Plan Estrategikoa egiteko erreferentziatzko esparrua ezartzea.

Honako galdetegi hau, beraz, oinarritzko printzipio eta gaien inguruko lana bideratzeko eta ahalik eta informazio gehien bildu ahal izateko egin da. Bilera parte-hartzaile honetan zehar, galdetegia laguntza euskarri gisa baliatzeaz gain, saioaren amaieran beterrik entregatu behar da.

Lehenengo zatia: Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren zeregina Ordezkaritza

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak toki entitateen alde egiten duen jardunaren zati handi bat haren lege izaeraren eta estutuen ondorio da: toki entitate horiek ordezkatzeko dituzten erakundeak eta gizarte eta ekonomia sarearen aurrean; eta toki entitateen topagunea da lan egiteko, partekatze eta elkarrekin irtenbideak bilatzeko.

- Halaber, NUKFk hainbat organismoetan parte hartzen du eta zuzeneko elkarrizketa du Nafarroako Gobernuarekin eta beste entitate publiko eta pribatu batzuekin. Era berean, batzordeak eta lantaldeak dituzte bere egituraren barruan eta toki esparruan interesgarriak diren gaien inguruko topaketak, jardunaldiak eta abar antolatzen ditu.

Batzordeak eta kontseiluak: hobetzeko proposamenak.	
Zure ustez, funtzio hau ongi artikulatzen al da?	
<input type="checkbox"/> <i>Bai</i>	<input type="checkbox"/> <i>Ez</i>
Ordezkatuta sentitzen al zara?	
<input type="checkbox"/> <i>Bai</i>	<input type="checkbox"/> <i>Ez</i>
Gehiago parte hartu nahiko zenuke?	
<input type="checkbox"/> <i>Bai</i>	<input type="checkbox"/> <i>Ez</i>
Nola artikulatu dezakegu hori?	

Zerbitzuak ematea

- Federazioak, gainera, beste jarduera batzuk egiten ditu; batzuetan, aipatu solaskide-lanarekin eta topagune izatearekin loturik eta, beste batzuetan, toki entitateek hala eskatzen diotelako edo jarduerak entitateentzako erabilgarriak izango direla erabaki delako. Ematen dituen zerbitzuen adibide dira, esaterako, honakoak: aholkularitza zerbitzua, informazioa eta komunikazioa, politikarien eta teknikarien prestakuntza, garapenerako lankidetzak, langileen hauta-probak, energia-konpainien %1,5eko tasaren kudeaketa, bide exekutiboko diru-bilketa, beste erakunde batzuen aurrean bakarkako laguntza etab.
- Horretaz gain, Federazioak egun toki entitateei ematen ez dizkien beste zerbitzu batzuk ere eman diezazkieke hala erabakiko balitz; adibidez, Europako funtsen eta dirulaguntzen alorreko aholkularitza handiagoa edota emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, erosketak zentrala, arriskuen prebentzioa etab. alorreko zerbitzuak.

Egungo zerbitzuak

Egun, NUKFK ematen dituen zerbitzuen artean zeintzuk ezagutzen dituzu?

Ezagutzen badituzu, zerbitzu bakoitza nola ematen den balora ezazu

Baloratu 1etik 5era (1 oso gaizki izanik eta 5 bikain)

Zerbitzuak	Ezagutza		Balorazioa				
	Bai	Ez	1	2	3	4	5
• <i>Aholkularitza orokorra</i>							
• <i>Informazioa eta komunikazioa</i>							
• <i>Politikari eta teknikarientzako prestakuntza</i>							
• <i>Garapenerako lankidetzak</i>							
• <i>Langileen hauta-probak etab.</i>							
• <i>%1,5aren kudeaketa (energia-konpainiak)</i>							
• <i>Bide exekutiboko diru-bilketa</i>							
• <i>Beste erakundeen aurrean banakako laguntza</i>							

Hobetzeko proposamenak egin ahal dituzu?

Adierazi zein zerbitzurako

Zerbitzuak handitzea

Zure ustez, beharrezkoa al da Federazioak toki entitateei ematen dizkien zerbitzuak handitzea?

Bai

Ez

Adierazi zure ustez handitu beharko liratekeen zerbitzuak eta nola?

Adierazi handitu beharreko zerbitzuak eta zein edukirekin edo ezaugarriekin...

Europar Batasuna

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna

Datuen babesa

Administrazio elektronikoa

Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH) eta Agenda 2030

Aholkularitza dirulaguntza eskaeretan

Plegu eta ordenantza ereduak egitea

Bestelakoak

Toki entitateetako langileekin lotutako zerbitzuak

Egun, Federazioak, toki entitateekin lankidetzan, langileak hautatzeko prozesuetan aholkularitza eman eta horietan parte hartzen du. Zure ustez, langileekin lotutako zerbitzu gehiago eman beharko lirateke? Zeintzuk?

Langileekin lotutako zerbitzuak	Eskaini beharko litzateke?	
	Bai	Ez
• <i>Parte-hartze handiagoa hautatze-prozesuetan</i>		
• <i>Toki entitateen ordezkariak negoziario kolektiboko prozesuetan</i>		
• <i>Beste bat:</i>		
• <i>Beste bat:</i>		
Nola? <i>Adierazi edukiak edo ezaugarriak...</i>		

Izaera instrumentala duten zerbitzu berriak

Federazioak orain ematen ez dituen beste zerbitzu batzuk eman diezazkieke toki entitateei. Zeintzuk iruditzen zaizkizu gehitu ahal direla?

Izaera instrumentala duten zerbitzuak	Eskaini beharko litzateke?	
	Bai	Ez
• <i>Erosketa zentrala</i>		
• <i>Arriskuen prebentzioaren alorreko zerbitzuak</i>		
• <i>Beste bat:</i>		
• <i>Beste bat:</i>		
Nola? <i>Adierazi edukiak edo ezaugarriak...</i>		

Bigarren zatia: NUKFren antolaketa eta profil instituzionala

Gobernu Organoak

NUKFren egungo antolaketa eta funtzionamendua baloratuko ditugu orain, berrikusi daitezkeen alderdiak identifikatu ahal izateko, NUKFren zeregina eta funtzioak hobeto betetzearren.

- NUKF beren borondatez erakunde horretan sartzea erabakitzen duten toki entitateek sortutako elkarte da. Honakoak dira NUKFren gobernu organoak: Batzar Nagusia, Batzorde Betearazlea, Lehendakaritza, Lehendakariordetzak eta Idazkaritza Nagusia.
- Federazioren kide diren toki entitateen ordezkari entitate bakoitzaren ordezkari dagokie, hots, alkateari, lehendakariari.
- Beharrezkoa den antolaketa horretaz gain, estatutuei jarraiki, NUKFren barruan atalak eta batzordeak sortu daitezke arazoak edo gai zehatzak jorratzeko.

Egitura	
Zure ustez, egungo egitura egokia al da NUKFren funtzioak betetzeko?	
<input type="checkbox"/> <i>Bai</i>	<input type="checkbox"/> <i>Ez</i>
<i>Ezetz erantzun baduzu, nola hobetu liteke?</i>	

Batzar Nagusia

- Batzar Nagusia da entitatearen organo gorena eta Federazioaren kide diren toki entitate guztien ordezkariak osatzen dute.
- Batzar Nagusiak urtean behin egiten du ohiko bilkura eta bilkura berezia egin dezake Batzorde Betearazleak egoki ikusten duenean edo kide diren toki entitateen hamarrenak idatziz hala eskatuta.
- Funtzionamenduari dagokionez, Batzarra osatzeko beharrezkoa da Federazioaren boto haztatu guztien heren bat duten kide diren entitateen ordezkariak bertaratzea. Ordu erdi igarota ordea, entitateen ehuneko bosta bertaratzearekin osatu ahalko da.
- Bertaratzea dagokion toki entitatearen edozein kideren esku utz daiteke.
- Orokorrean, Batzar Nagusiko erabakiak gehiengo soiluz hartzen dira toki entitate bakoitzari boto bat egokituta. Gai zehatz batzuek soilik (lehendakaria hautatzea, estatutuak aldatzea...) eskatzen dute boto haztatuen gehiengoa. Hori dela eta, entitate bakoitzari dagokion boto haztatu kopurua zehazten duen taula jasotzen da estatutuetan.

Zure ustez, egokia al da bilkuren araubidea?	
<input type="checkbox"/> <i>Bai</i>	<input type="checkbox"/> <i>Ez</i>
<i>Egokia ez dela iruditzen bazaizu, zure ustez, nolakoa izan beharko litzateke?</i>	
Nola hobetu ahalko litzateke Batzar Nagusiaren funtzionamendua?	

Batzorde Betearazlea

Zalantzarik gabe, Batzorde Betearazlea oso organo garrantzitsua da NUKFren jardunaren zuzendaritza dagokiolako.

- Gutxienez 19 kidek eta gehienez 25 kidek osatzen dute.
- Batzordearen egungo osaerak toki entitateen tipologia, populazio-tarte eta lurralde banaketa mota guztien ordezkari bermatzea du xede. Horregatik, estatutuetan taula batean zehazten dira entitate bakoitzari tipologia eta populazio-tartearen arabera egokitzen zaizkion ordezkari kopurua. Batzorde Betearazlerako kideak hautatzerakoan, entitate tipologia bakoitzeko ordezkariak hautagaitzak aurkeztu ahal izango dituzte, dagokien populazio-tartean.
- Gainera, Batzorde Betearazleko berezko kideak dira Lehendakari eta Lehendakariordetzak betetzen dituzten pertsonak.
- Funtzionamenduari dagokionez, Batzordea hilean behin biltzen da eta bertaratutakoen gehiengoarekin hartzen ditu erabakiak. Batzorde Betearazleko kideek haien toki entitateko edozein kideri eskuordetu diezaioke bertaratzea.

Zure ustez, beharrezkoa al da Batzorde Betearazlea hautatzeko sistema aldatzea?

Bai

Ez

Zure ustez, zer alderdi hartu beharko lirateke kontuan?

- Lurralde-ordezkaritza bermatzea: egun estatutuek aurreikusten dituzten eskualdeak Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Legeak ezartzen dituen eskualdeetara egokituz.*
- Toki entitateen tipologia ezberdinen ordezkariak eta populazio-tartean arabera berrikustea.*

<i>Zure ustez, nolakoa da egungo ordezkariak?</i>		<i>Eskasa</i>	<i>Egokia</i>	<i>Gehiegizkoa</i>
Udal bakunak:	3.000 biztanletik behera (4 kide)			
	3.000-20.000 biztanle artean (4 kide)			
	20.000 biztanletik gora (2 kide)			
Udal konposatuak:	500 biztanletik behera (kide 1)			
	500 biztanletik gora (kide 1)			
Kontzejuak:	500 biztanletik behera (kide 1)			
	500 biztanletik gora (kide 1)			
Kidetutako beste toki entitate batzuk (2 kide)				

Karguak

- **Lehendakaritza:** Federazioaren organoen eraketa-bilkuran, Lehendakaria hautatzen da toki entitateak berriro ondoren. Kidetutako toki entitate bateko burua hautatzen da lehendakari, baldin eta lehen bozketan boto haztatuen legezko gehiengo osoa lortzen badu. Gehiengo hori lortzen ez badu, bigarren bozketa bat egingo da eta emandako boto haztatuen gehiengo soilaz lortzen duen pertsona izango da hautatua.
- **Lehendakariordetzak.**
 - Lehendakariordetzarako hautatuko dira, kidetutako toki entitateetako buruak, baldin eta bozketa berean boto gehien lortu badituzte lehendakaritzarako hautatutako pertsonaren ondoren.
 - Lehendakariordetzak modu horretan bete ezin badira, bozketa berezia egingo da eta ohiko botoen gehiengo soilaz hautatuko dira.

Zure ustez, beharrezkoa al da lehendakaritza hautatzeko sistema aldatzea?

Bai

Ez

Nola?

Eta beharrezkoa al da lehendakariordetzak hautatzeko sistema aldatzea?

Bai

Ez

Bestalde, beharrezkoa al da lehendakariordetza bat kontzejuen ordezkari batek beteko duela bermatzea?

Bai

Ez

Nola artikulatu liteke lehendakariordetzen hautaketa?

Zure ustez, beharrezkoa al da lehendakaritza eta lehendakariordetza karguetan emakumeen eta gizonen arteko oreka bermatzeko mekanismoak abiatzea?	
<input type="checkbox"/> <i>Bai</i>	<input type="checkbox"/> <i>Ez</i>
Nola?	
Kontuan hartu beharreko beste alderdi batzuk:	

Borondatezko antolaketa

Atal honen xedea da NUKFk zenbait tresnaren bidez kidetutako entitateen lana eta parte-hartzea errazteko baliatzen duen antolaketa eta egitura berrikustea.

NUKFren antolaketa	
Batzordeak eta Ponentziak; Sareak.	
Zure ustez, beharrezkoa al da NUKFn atalak, batzordeak, lantaldeak edo sareak sortzea?	
<input type="checkbox"/> <i>Bai</i>	<input type="checkbox"/> <i>Ez</i>
Adierazi zein egitura komeniko litzatekeen sortzea eta zein arlotan edo zein gairen inguruan	
Atalak	
<i>Estatutuei jarraiki, Federazioak atalak sortu ahalko ditu bere barnean, arazo berdinak dituzten Toki Entitateak biltzeko, edo Federazioaren ihardunbidea deszentralizatzeko lurralde edo eskualdeen arabeko egitura bat sortzeko.</i>	
<input type="checkbox"/> <i>Kontzejuen atala</i> <input type="checkbox"/> <i>Mankomunitateen atala</i> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	

Batzordeak eta ponentziak

Batzordeak zenbait arloren inguruan (ogasunak, kultura, gizarte gaiak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna...) lan egiteko sortzen diren organoak dira eta izaera egonkorra dute. Estatutuek ponentzia berezien sorrera ere aurreikusten dute gai zehatzak aztertu edo lantzeko. Ponentzia horiek, haien xedea dela eta, Federazioan abian diren lantaldeen antzekoak dira (0-3 hezkuntzako lantaldea, immatrikulatutako ondasunena etab.).

Sareak

Sareak arlo jakin batean interes amankomunak dituzten eta arlo horretan politikak sustatzeko elkarrekin lan egin nahi duten entitate-taldeak dira. Adibide moduan, Espainiako Udal eta Probintzien Federazioan, besteak beste, honako sareak daude abian: Klimaren aldeko Hirien Espainiako Sarea, Agenda 2030erako Toki Entitateen Sarea, Gardentasunaren eta Herritarren Parte-hartzearen aldeko Toki Entitateen Sarea. Autonomia Erkidego batzuetan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun arloko toki entitateen sareak daude.

Hirugarren zatia: Araubide Ekonomikoa, Hautetsien Ordainsarien Araubidea, Gardentasuna eta Erantzukizun Soziala

Atal honetan, asmoa da kidetutako toki entitateen kuoten oraingo egitura berrikustea, ordezkari-tza organoetako kideentzako ordaintze sistema iraunkor bat ezartzeko aukera aztertzea eta aurrekontuak eta kontuak kudeatzeko sistema eguneratzea, kontrol prozedurak eta informazio ekonomikoaren publikotasuna hobetzeko.

Kuoten araubidea eta emandako zerbitzuaren kostua jasanaraztea

- Kidetutako entitateek ordaintzen duten kuota biztanle kopuruaren arabera kalkulatzen da. Udal konposatuei dagokienez, kontzejuetan bizi ez diren biztanleei udal bakunen zenbatekoa aplikatzen zaie. Honakoak dira egungo kuotak biztanle bakoitzeko:

UDAL BAKUNAK	0,3428€
UDAL KONPOSATUAK	0,1089€
KONTZEJUAK	0,2999€
BESTELAKO ENTITATEAK	0,0822€
GUTXIENeko KUOTA	40,00€

Zure ustez, egokia al da egungo kuota-sistema?

Bai

Ez

Zer aldatuko zenuke? Zer eduki beharko litzateke kontuan?

- Egun, entitateei ez zaizkie kostu gehigarririk jasanarazten Federazioko zerbitzuak jasotzeagatik; kuotaren barne daudela ulertzen baita.

Zerbitzu berriak emango balira, zein kasutan ezarri beharko litzateke kostuak jasanarazteko sistema bat?

Ordezkaritza organoetako kide diren pertsonentzako konpentsazio sistema bat arautzea	
Zure ustez, komenigarria al da ordezkari-tza organoetako kide diren pertsonentzako konpentsazio sistema bat arautzea?	
<input type="checkbox"/> <i>Bai</i>	<input type="checkbox"/> <i>Ez</i>
Zein kasutan?	
<input type="checkbox"/> <i>Lehendakaritza-arentzat</i>	
<input type="checkbox"/> <i>Batzorde Betearazleko kideentzat:</i>	
<input type="checkbox"/> <i>Dedikazio berezia behar duten Federazioko jarduerak egiten diren kasuetarako.</i>	
<input type="checkbox"/> <i>Beste batzuk</i>	

Publikotasuna eta Gardentasuna	
<ul style="list-style-type: none"> • NUKFren ekonomia- eta aurrekontu-kudeaketaren araubidea irabazi asmorik gabeko elkarte batena da. Federazioa kide-tutako entitateen kuotekin eta Toki Ogasunei buruzko Funtsean duen parte-hartzearekin finantzatzen da. Onesten duen aurrekontuak ez du irabazi asmorik gabeko erakundeek duten izaera mugatzailea eta kontabilitate orokorreko sistema jarraitzen. NUKFren kontuak ez dira inolako erregistro publikotan entregatzen. Batzar Nagusiak onesten ditu, Batzorde Betearazleak hala proposaturik, txosten baten bitartez eta aurrekontuaren aurreikuspenekiko egon diren desbideratzeak azaldu ondoren. Aipatu txostenean, aurrekontuaren gauzatzea eta diruzaintzako emaitza eta gerakina aurkezten dira. Bai aurrekontua bai kontuak NUKFren Gardentasunaren Atarian argitaratzen dira. 	
Zure ustez, egokia al da NUKFren gardentasun eta publikotasun maila ekonomia- eta aurrekontu-kudeaketari dagokionez?	
<input type="checkbox"/> <i>Bai</i>	<input type="checkbox"/> <i>Ez</i>
Egokia iruditzen ez bazaizu, zeren falta sumatzen duzu?	

- NUKF Gardentasunari buruzko Foru Legearen menpe dago. Horrenbestez, bere web-gunean Gardentasunaren Ataria du eta, bertan, aipatu legeak eskatutako informazioa zehazten da.
- Gainera, gardentasuna areagotzea xede duten beste ekintza batzuk ere egiten ditu; hala nola, Batzorde Betearazleak hartutako erabakien eta jorratutako gaien inguruko informazio zehatza kidetutako entitate guztiei igortzea bilkura bakoitzaren ondoren.

Zure ustez, egokia al da oro har, NUKFren gardentasun eta publikotasun maila?

Bai

Ez

Egokia iruditzen ez bazaizu, zeren falta sumatzen duzu?

Erantzukizun Soziala

- Erantzukizun Sozial Korporatiboaren hiru arlo handi dira langileak, ingurumena eta inguru soziala.

Zure ustez, NUKFk Erantzukizun Sozialaren alorreko politika bat izan behar al du?

Bai

Ez

Nola egin beharko luke?